

Gu, Alazne, Iskander eta Maider gara, Haur Hezkuntzako Goi Mailako Zikloko bigarren mailako ikasleak gara. Ziklo honetako bi urte hauetan oso presente izan ditugu inklusioa, aniztasun funtzionala, pertsona mota desberdinak... Horregatik, ikasitako guzti hori praktikan jartzeaz gain, enpresa baten bitartez guzti hori transmititu, bermatu, islatu... nahi dugu.

Gure enpresa sortzerako orduan aniztasun funtzional desberdinak dituzten pertsonak elkartzeko gune bat sortzea bururatu zitzaigun. Horretan oinarrituta, honako beste ideia bat bururatu zitzaigun. Eskolaz kanpoko jarduerak antolatzen dituen enpresa bat sortzea. Konkretuki, aniztasun funtzionala duten haurren gizarteratzea bermatzeko eta aldi berean bizitza duinagoak lortzeko ekintzak antolatzen dituen. Helburua, aniztasun funtzionala duten haurren gizarteratzea bermatzeaz gain, familien eta haurren arteko harremana eta ezagutza sustatzea da, kontzientzia soziala lortzeko. Gure enpresarentzako izena pentsatzerakoan, etxe baten kontzeptuan pentsatu genuen. Denok elkartzeko eta inklusioa bermatzeko gune bat nahi genuen, segurtasuna eta konfiantza transmititzen zuen espazio bat. Horretarako, lanari ekin behar genion eta gizarte honetan zeozer aldatzeko gogoia izan. Horregatik, "ekin" eta "etxe" hitzak erabiltzea egokia iruditu zitzaigun, beraz gure enpresaren izena "*Ekitxe*" da.